

**SANTA TERESAREN HIRU LIBURU NAGUSIEI
BURUZ GOGOETA BATZUK****SANTA TERESAREN *BIZITZA LIBURUA***

Santa Teresa emakume polifazetikoa dogu. Beste gaitasun askoren artean, goi-mailako idazlea ere bada. Liburuak eta letradunak oso gogoko ditu. “Beti izan bainaiz letrazalea” (*Bizitza* 5, 3). “Letrak izatea gauza handia da” (*Bizitza* 13, 16). “Letradun onak ez ninduen egundo ere engainatu” (*Bizitza* 5, 3). Sasi-letradunei, ostera, benetako bildurra deutsee.

Letradunen artean jende askogaz izango ditu hartu-emon sakonak. Besteak beste, hona hemen izen batzuk: Aita Araoz, Lagundiko Komisarioa; San Frantzisko Borja, Gandiako dukea; Gil González, Lagundiko Probintziala; Baltasar Álvarez, Salamancako Errektorea, Santander, Segoviako Errektorea; Frantzisko Salcedo; Gaspar Daza; Ripalda, Burgosko Errektorea; Salazar, Cuenkako Errektorea; Joan Ávilako Maisua; Paulo Hernandez doktorea; Ordoñez Avilako Errektorea; Domingo Bañez, Ofizio Santuko aholku-emoilea; Chaves Maisua; Pedro Ibañez, Avilako irakaslea; García de Toledo; Bartolome de Medina; Felipe Meneses, San Gregorio Ikastetxeko Errektorea; Salinas Maisua; Diego Yanguas; Joan Gurutzeko; Jeronimo Gracian; Aita Pradanos; Aita Cetina eta abar eta abar.

Halan ere, Teresak bai bere burua eta bai emakumeen mundua letrabakotzat jotzen ditu. Behin eta barriro kezatzen da: “Emakumeok ez baikara letradunak” (*Bidea* 26, 3).



“Emakumeok letrarik ez dugunez gero” (*Bidea* 28, 10). Hau egia ere bada. Gizarte haretan, zoritxarrez, ez euken emakumeak kasik aukerarik ikasketak egiteko. Eta egoera horrek min emoten deusio Teresari. Beraren garaiko idazleak gizonetzkoak ziran. “Idatz dezatela letradunek”, dinotso umorez Aita Jeronimo Graziani idaztera bultzatzen ebalako!

Hamabost urtekin idatziko dau Teresak zaldun liburuxka bat bere lagunen solasaldirako. Gaur egun liburu hori galduta dago. 45 - 50 urte inguru dituala hasiko da idazten paregabe-

ko liburuak. Ia beti bere autorleak eta lagunak eta mojak eskatuta. Beti ere estilo bizi-bizia, azalpen zoragarriak, irudi errazak eta egokiak erabiliz. Punta-puntako narratzailea. Sarritan bere liburuak alkarrizketak dirudie. Batzuetan bere barneko gauzakin dihardu, besteetan inguruko jendearekin, gehienetan bere mojekin baina batez ere Jaungoikoarekin. Batetik bestera ari da. Asko eta asko izan dira santa Teresaren estilo literarioa goraiatu dabenak. Eta hori hasiera-hasieratik. Besteak beste, frai Luis de León maisu handia. Eskerrak berari argitaratuko dira Teresaren lanak.

Merezi dau gaur egun daukaguzan Teresaren idazlanak aipatzea: *Bizitza Liburua*, *Perfekzio Bidea*, *Barne Gaztelua*, *Fundazioak*, *Arimako Kontakizunak*, *Gogoetak*, *Arimaren Bibotz-Oibuak*, *Konstituzioak*, *Komentuak Bizitatzeko era*, *Abisuak*, *Nigan Bila Ezazu Zeure Burua eta Norgebiagoka bati emonedako Erantzuna*, *Pentsamenduak*, *Apunteak*, *Oroitidazkiak*, *Olerkiak*, *Gutunak*.

Inportanteenak lehenengo laurak dira. Oso ederrak eta aberatsak bai literatura aldetik eta bai barneko esperientzia sakon eta grazia mistikoagaitik. Euron zehaztasun batzuk egingo ditut.

Bizitza Liburua

Teresaren liburu mardulena dogu berau. “Liburu nagusia”, bere esanetan. Gugana heldu dan erredakzioa bigarrena da. Berrogeita hamar urte dituala, bere autor-entzuleak aginduta idazten dau. Aurrena hiru urte lehenago idatzi eban.

Liburu hau, batez ere, Jaungoikoak Teresarengan egindako historia da. “Zer da hau, ene Jauna!... Hau idazten ari naizela, uste dut zure laguntzaz eta zure errukiagatik esan nezakeela San Paulok zioena, egokitasun harekin ez bada ere, honezkerro ez naiz ni bizi, Zu, ene Kreatzailea bizi zara nigan” (*Bizitza* 6, 9). Jaungoikoa da S. Teresaren liburu guztien protagonista

nagusia. Jaunaren maitasuna eta errukia kontatzea baino ez dau bilatzen.

Sarritan agertzen dau holako adieraztezina Jaungoikoaren mesede ikaragarriak azaltzeko. “Gauza bat da Jaunak mese-dea egitea, beste bat zer mesede eta zer grazia den ulertzea, eta beste bat nolakoa den esatea eta azaltzen jakitea” (*Bizitza* 17, 5) “Ezinezkoa iruditzen zitzaidan gai hura erabiltzen asmatzea, grekoz mintzatzea baino ere zailago da izan ere. Baina Jaunak argitu egin zuen nire adimena, batzuetan hitzez eta beste batzuetan nola esan behar nuen adieraziz eta, (...) nik esan ezin dudana eta esaten ez dakidana Haren Maiestateak esan nahi duela dirudi” (*Bizitza* 18, 8). “Espirituaren hizkuntza hau ni bezelako letragabeentzat adierazteko hain gaitza izanik” (*Bizitza* 11, 6) “Ai... ez dakit zer esaten dudan... ia-ia nik neuk hitz egin gabe idazten dut hau!; nahasia nagoelako eta pixka bat neuregandik irtenda, gauza hauek berriro neure oroimenera ekartzean” (*Bizitza* 38, 22). “Batzuetan zentzugabekoak esanez aurkitzen dut erre-mediaoa” (*Bizitza* 18, 3). “Gauza askotan ikusi dut nire adimenak ez duela ulertzen, esan ohi denez, jaten ematen diotena baizik” (*Bizitza* 28, 6).

Baina gauza ederrena da, Teresak berak pertsonalki esperimetatzen dauana baino ez dauala idazten. “Neugan sarri esperimentatu ez dudanik ez dut esango” (*Bizitza* 18, 8). “Beraz, esperientziaz ikusi dudana esango dut” (*Bizitza* 28, 7). “Izan ere, hemen idazten ditudan gauza asko, ez dira nire burutikoak, neure Maisu zerutarrak esaten dizkidanak baizik” (*Bizitza* 39, 8)

Ez dauko bildurrik barruan esperimentatzen dituan ikuskarriak edozeineguz diskutitzeko. Ausardiaz desafiatzen ditu orduko letradunak: “Arimak bat-batean hain jakintsu ikusten du bere burua, eta Hirutasun Santuaren misterioa eta beste goigoiko gauza batzuk hain argi ikusten ditut, non edozein teolo-

gorekin ausartuko balitzateke handitasun hauen egiari buruz eztabaidatzen” (*Bizitza* 27, 9).

Ez bakarrik desafiatu baita aurpegira bota ere euron esperientziarik eza Jaunaren gauzetan. Batez ere gizonezkoen artean. Pedro Alcantara jarten dau testigutzat: “Uste dut gutxi direla hainbeste gauzaren esperientziara iritsi direnak; (...) eta gizonezkoak baino askoz ere gehiago dira Jaunak mesede hauek egiten dizkienak, eta hau frai Pedro Alcantarako Santuari entzun nion (eta nik neuk ere ikusi dut), bide honetan gizonezkoak baino askoz ere onura gehiago ateratzen zutela esaten baitzuen, eta horretaz egundoko arrazoiak emanez emakumeen alde, hemen zertan esanik ez badago ere” (*Bizitza* 40, 8).

Liburuaren edukia

Nahiz eta Teresarengan azaleko gertakizunak eta barneko esperientzia ederrenak lar gurutzatuta agertu, lau zatitan banatu leiteke liburu honen edukia.

Lehenengo bederatzi kapituluetan kontaktzen deusku gurasoen eta neba-arreben eragin oso positiboa. Amaren heriotza; lehengusu-lehengusinen eta lagunen eragina. Batzuetan negatiboa, besteetan positiboa. Moja izateko hartutako erabakia. Jasandako gaixotasun oso arraroa, otoiz bidean izandako hutsak eta, batez ere, bere konbertsioa.

Ondoren hamaika kapitulu datoz otoitzari buruz. Irudi baten bidez lau otoitz-gradu adierazten saiaturko da Teresa. Tarketa perfekzio-bidean doazenentzat argibide ederrak ere badakaz. Doktrina ona eta mamitsua.

Hogeita bigarren kapituluak trantsiziokoa dirudi lau otoitz graduei buruzko tratatuaren eta kontakizun autobiografikoaren artean. Bi gai darabiltza: bata, grazia mistikoak ez behartzea, Jaungoikoak emoten dabezalako nahi dauanean eta

nahi dauanari; bestea, bizitza mistikoan Kristoren Gizatasuna ez baztertzea.

Hogeita hirugarren kapitulutik hogeita hamaikaraino, bere bizitzaren autobiografiari heltzen deutso barriro ere. Kapitulu honeetan Jaunaren mesedeak, grazia mistikoak eta ikuskariak azaltzen ditu. Bata bestea baino harrigarriagoak sarritan. Batean “barruko bildutasuna” azalduko dau; bestean bildutasun honetatik datozen “barruko sosegu eta bake oso gozoa”; hurrengoan “ahalmenean loaz” arituko da. Baita “ahalmenean guztien bat egitearen” eta “liluramenduaren eta gainezkaldiaren” arteko diferentziaz ere; “espirituaren hegaldia” eta “bultzadak”, eta “zauri modu bat bihotzetik gezi bat sartzea” eta “maitasunezko zauriak”, arimaren muintetik urteten dabenak azalduko deuskuz.

Gertakari honeek “ez dira idazteko ezta esateko ere, ezinezkoa baita ulertzea esperimentatu duenak izan ezik” (*Kont.* 5, 17). Ohar aproposa kristau fedea barnetik ulertzen hasteko!

Jarraian, bost kapituluetan, (32tik 37raino) Ávilako San Jose komentuari fundazioa kontatzen deusku. Honetaz jasandako buruhausteak eta oztopoak eta laguntzak eta, batez ere, helburuak, “Santa Teresa Fundatzaile” deritxon aurreko artikuluan aipatu nebazan.

Azkenengo hiru kapituluetan (38tik 40raino), barriro ere, Jaunak egindako beste mesede eta ikuskari handi eta errebelazio hunkigarriak kontatzeari ekingo deutso. Beti lez tarteka doktrina ona eta aholku argiak kristau biderako.

Azken buruan, liburu hau idazteko agindu eutson García Toledo autorleari dinotso: “Eska biezaio berorrek Jainkoari, eraman nazala Berarekin, edota ager diezadala Bera nola zerbitzatu. Haren Maiestateak nahi dezala hemen idatzi dudanak berorri nolabaiteko probetxua egitea, asti gutxi izanik, neketu gertatu baitzait; baina zorioneko nekea, Jauna behin baka-

rrik gorestera eragin dezan zerbait esaten asmatu badut; horrekin ongi ordaindutzat joko nuke, berorrek gero idazkia erreko balu ere” (*Bizitza* 40, 23).

Hemen ere argi nabaritzen da Teresaren umiltasuna eta bere bihotzaren handitasuna.

* * *


SANTA TERESAREN PERFEKZIO BIDEA LIBURUA

Teresaren bigarren liburu ederra *Perfekzio Bidea* dogu. Berak fundatutako San Jose komentuko mojak eskatuta idazten dau. Gai nagusia otoitza da eta zelako bizimodua eroan behar daben abisuak eta aholkuak emoten arituko da:

“San Jose monasterioko ahizpek, otoitzaren gaiaz gauza batzuk idazteko, aldi honetan nire aitor-entzulea den Aita lizentziatu Domingo Bañezen baimena nuela jakinik horretaz zerbait esan diezaiedan hainbestearaino ekin didate, non haien esanera jartzea erabaki baitut, pertsona espiritual eta santu askorekin harremanak izanik horretan asma dezakedalakoan; izan ere, haiek didaten maitasun handiak, akastuna eta halaholako idazkeran adierazia izan arren, oso ongi idatziak dau den eta zer idazten duen dakienaren liburu batzuk baino ere onargarriago egin dezake. Eta badut ustea haien otoitzetan, haiei esker izan daitekeela, Jaunak nahi izatea etxe honetan egiten den bizierari dagokionaz nik asma dezadala zer edo zer esatea” (Hizaurrea, 1).

Liburu hau idazteaz ere, bere barne esperientzia izango dau kontuan. Baita beste batzuen ere: “Ez dut esango, neugan edo besteengan ikusita, esperientziaz ez dakidan gauzarik” (ibid.) Hortik jatorkoz liburu honi praktikotasuna, freskotasuna, indarra. Eta polito egiten dau barre jakintsuen lepotik: “baliteke ongi etortzea gauza txikitxoetan jakintsuek baino

hobeki asmatzeko, hauek zeregin garrantzitsuetan ari direlako, ez baitiete kasu handirik egiten itxura batean ezer ez diren gauzei” (ibid.)



Perfekzio Bidea liburuaren hasiera (El Escorialeko eskuizkribua)

Erredakzio bi

Lehenengo erredakzioa, 1565.eko azkenean edo 1566.eko hasieran idatzi eban. 73 kapitulu ditu. Honen autografoa Escorialen gordeten da. Bere konfessore batek irakurri ondoren aginduta, Teresak beste erredakzio bat egingo dau. Gauza batzuk kenduz eta beste batzuk orraztuz, 42 kapitulu besterik ez ditu izango. Honen autografoa Valladoliden aurkitzen da. Hauxe da gehien erabilten dana. Badira edizio batzuk, bigarren erredakzioa lehenengoaz osatzen dabena ere. Lehenengoak bigarrenak baino aberatsagoa eta naturalagoa dirudi.

Liburuaren edukia

Perfektzio Bidearen bigarren erredakzioa lau zatitan banatu leiteke. Lehenengoan, Santa Teresaren asmo nagusiak Karmengo Ordena errotik barrizatzean. Bigarrenean, otoiz bidea egiteko behar diran bertuteak. Hirugarrenean, Gure Aita otoitzaren azalpena eta laugarrena, otoitz bidea egiteko dakazan bi ibilbideak izango litzakez.

Lehenengo zatia

Liburuaren aurrengo hiru kapituluak sartuko neukez zati honetan. Bertan gogoratzen ditu Teresak, zeintzuk diran bere asmoak Karmengo Ordena barrizatzean. Zertarako “perfektzio bidea” edo “otoiz bidea” egin? Zein da karmeldar lekai-meen karisma eta helburu nagusia? Eta erantzuna argi dauko Teresak: Kristo Jesusekin bat eginik, Elizaren batasunaren alde otoitzari emonda, bizitzea. Hona hemen Teresaren berba “sakratu” batzuk:

“Sugarretan dago mundua; esan oi denez, Kristo berriro auziperatu nahi dute, hainbeste gezur ezartzen baitizkiote; haren Eliza lurrera bota nahi dute (...) Eta zuen otoitzak eta desirak eta diziplinak eta barauak esan dudana horretara bideratuak

ez badira, pentsa ezazue ez duzuela egiten ez betetzen Jaunak zuok hemen alkartzean izan zuen asmoa” (*Bidea* 1, 5; 3, 10).

Bigarren zatia

Otoitz- bidea egiteko ezinbestekoa da gure motxila leporaino bertutez betetzea. Ez jakon gogoko Teresari “hainbesteko laztasunik kanpo aldetik” (*Bidea* 1, 1), bai, ostera, bertute ederrez apaintzea. Batez ere bertute honeek ditu begiko otoiz biderako: “alkarrenganako maitasuna”, “sorkari guztietatik askatuta egotea”, “umiltasuna” eta “erabaki handi eta sendoa”, otoitz-bideari azkeneraino eusteko.

a) Alkarrenganako maitasuna

Alkarrenganako maitasunari buruz honelako abisu zoragarriak jarten ditu Teresak: “Hemen guztiek izan behar dute adiskide, guztiek izan behar dute elkar maite, guztiek izan behar diote elkarri estimua, guztiek lagundu behar diote elkarri; eta, Jainkoarren, gorde zaitezte aparteko adiskidetasun haue-tatik, santuenak badira ere, anaien artean ere pozoi hutsa baitira eta inolako probetxu gabeak direla ikusten baitut; eta ahaideak, badira, askoz ere txarrago, izurria dira! Eta sinetsiez adazue, ahizpak, hau gehiegizkoa iruditzen bazaizue ere, horretan dago pefekzio handia eta bake handia, eta oso sendo ez daudenei etorbide ugari kentzen zaizkie aurretik; bestalde, bihotza batek beste batek baino gehiago erakartzen badu (ezinbestean hala gertatzen baita, berezkoa delako, eta askotan kaskarrenak erakartzen gaitu gehiago naturaren dohain gehiago baditu), zuhurtziaz joka dezagula bihotzaren joera hark mendera ez gaitzan. Maita ditzagula bertuteak eta barruko ona, eta kontu handia izan dezagula kanpoko horri jaramonik ez egiteko. Ez dezagun onar, ene ahizpak, gure bihotza inoren mendeko izan dadin, bere odolaz erosi zuen haren mendeko baizik” (*Bidea* 4, 7-8).

Beste hau ere ez da abisu makala: “Beti senti ezazue biziki ahizparengan ikus dezazuen edozein hutsegite, agerikoa bada. Eta maitasuna honetan agertzen da eta ongi trebatzen, hura jasaten jakitean eta haren hutsegiteez ez harritzean, besteek gauza bera egingo baitute zuek dituzunekin, zuek konturatu gabekoak askoz ere gehiago izango direlako; eta Jainkoari gartsu otoitz egin haren alde, eta saiatu bestearengan agertzen den hutsegitearen aurkako bertutea perfekziorik handienaz gordetzen. Saiatu horretan, hari egintza bidez irakasten, beharbada, ez baitu hitzen bidez ulertuko, ezta zigorrez on egingo ere. Eta norberak bestearengan distiraka ikusten duen ona egitea, erraz zabaltzen da” (*Bidea* 7, 7).

b) Sorkari guztietatik askaturik egotea

Barru eta kanpoko sorkari guztietatik askatzea eskatzen dau Teresak. Baina ez hutsik geratzeko, Jaungoikoaz osorik maiteminduta bizitzeko baino; Jaunari geure burua askatasun osoz “zatiketa barik emoteko”. Jakin badaki Teresak esperientziaz, “errazago dela gauza honeek idaztea, egitea baino”. “Orain gatozen izan behar dugun sorkariekiko atxikimendurik ez horretara, hor baitago guztia, behar dan bezala badoa. Hemen dago, diodanez, guztia; izan ere, Kreatzailearekin soilik besarkaturik eta sorkari guztien inolako atxikimendurik gabe, Haren Maiestateak isurtzen ditu bertuteak, eta horrela, guk apurka-apurka landuz ahal duguna, ez dugu asko gehiago borrokatu beharrik izango, Jaunak esku hartzen baitu deabruaren aurka eta gauza guztien aurka gu babesteko. Ondasun txikia dela uste duzue, ene ahizpak, gu guztiok Guztiari geure burua ematea zatiketarik gabe? Eta on guztiak haren gan direnez gero, gorets dezagun biziki, ahizpak, hori baino beste zereginik ez den toki honetan elkartu baikintuen. Eta honela, ez dakit zertarako diodan, hemen zaudetenok nire irakasle izan zaitezketeta; izan ere, hain gauza garrantzitsu honetan aitortzen dut ez daukadala nahi nukkeen eta komeni

dela deritzodan perfekziorik, eta hori bertute guztietan; eta hemen diodanaz, gauza bera: errazago dela idaztea, egitea baino” (*Bidea* 8, 1) Arazoa da “arima erabaki sendoz Jesus gure Jaun onarekin besarkatzea, han guztia aurkitzen duenez gero guztia ahazten baitu” (*Bidea* 9, 5).

Halan eta ere, arrisku handiena norbera da: “Mundutik eta ahaideengandik askaturik eta esanak diren baldintzetan hemen itxita egonik, badirudi guztia eginda dela eta ez dela beste ezeren aurka borroka egin beharrik. Oi, ene ahizpak!, ez egon hain ziur eta ez egin lorik, lapurren beldurrez etxeko atea ongi itxi ondoren, lasai lotaratzen denaren eta haiek barruan uzten dituenaren antzekoa baita. Eta badakizue ez dagoela lapur gaiztoagorik, gu geu geratzen baikara; izan ere, kontu handiz ibili ezik eta bakoitza bere borondateari kontra egiten saiatzen ez bada, gauza asko daude bere Egileagana lurrez eta berunez beterik joan gabe hegan egiteko barruko askatasun hau kentzen dutenak (...) geure buruagandik askatze hau eta geure buruaren aurka egitea gauza latza da, bat-bat eginik gaudelako eta geure burua maite dugulako” (*Bidea* 10, 1-2). ”Etxe hau zero bat da, lur honetan zerurik bada, Jainkoa poztea baino besterik nahi ez duen eta norbere pozaren ardurarik ez duenarentzat, zer edo zer gehiago nahi izanez gero, guztia galduko da, besterik lortu ezin duelako; eta pozbiderik ez duen arima zeharo gogait eginda dagoenaren antzekoa da, denik eta jakirik hoberena bada ere, nazka ematen dio, eta osasuntsuek gogotsu jaten dutenak barrua nahasten dio” (*Bidea* 13, 7).

c) Umiltasuna eta sorkari guztietatik askatzea

Teresak bertute guztiak umiltasunaz lotuta bizi ditu. Baita maitasuna bera ere. Eta zer esanik ez, “sorkari guztietatik askatzea ere”. Oinarrizko inportantzia emoten deutso umiltasunari. Eta hori bere lan guztietan ageri da eta, batez ere otoitz-

kontenplazio munduan, tranparik ez egitearren. “Otoitzaren gaian sartuz noala dirudi, eta oraindik falta zait zertxobait azaltzea: apaltasuna da, etxe honetan bearrezkoa dena; izan ere, otoitzeko ariketa nagusia da eta, esan dudadanez, oso komenigarri da apaltasunean zeuen burua nola ongi trebatu ulertzen saiatzea, eta hauxe da haren puntu nagusietako bat eta otoitzari emanak dauden persona guztientzat oso beharrezkoa dena” (*Bidea* 17, 1). Beste hau ere gogoan hartzeko abisu ederra: “Kontuan izan bezate, egiazko apaltasuna, Jaunak beraiekin zer egin nahi duen huraxe egiteaz pozik egotean dagoela eta beren buruei mirabe ezerezak deitzean. Bada, kontenplazioa izatea eta gogoetazko eta ahozko otoitza edukitzea eta gaixoak sendatzea eta etxeko gauzetan zerbitzatzea eta lan egitea –beherengo gauzetan bada ere– guztia da gurekin egotera, jatera eta gozatzeraz datorren Jaunaren zerbitzurako; beraz, guri zer gauza batean nahiz bestean zerbitzatu?” (*Bidea* 17, 6).

Edozer bertuteri buruz berba egiten dauanean, umiltasunaz lotu barik ez da geratuko. Bertute bakotxa umiltasunaren ahizta bat eginda ez badator, ez da Teresarentzat kristau bertute izango.

Maitasunaren ahizta bezala umiltasuna jarten dau. “Egon ziur apalago denak maitasun handiagoa edukiko duela, eta hain apala ez denak, txikiagoa. Izan ere, ezin dut nik ulertu nola egon daitekeen apaltasuna maitasunik gabe, eta maitasuna apaltasunik gabe, ezta nola egon daitezkeen bi bertute hauek ere sorkari guztietatik askaturik egon gabe” (*Bidea* 16, 2).

A zelako otoitz ederragaz lotzen dituan sorkari guztietatik askatuta egotea eta umiltasuna. Bi ahizta dirudie: “Hauek bai bertute gorenak, sorkari guztien jabeak, munduko erreginak, deabruak jartzen dituen lakio eta sare guztiak askatzen dituztenak, gure irakasle den Kristok hain maite izan zituenak, egundo ere ez baitzen haiek gabe izan! Horiek dituen irten

daiteke eta gudukatu infernu osoaren aurka eta mundu osoaren eta honen arrisku guztien aurka. Ez dezala inoren beldurrik izan, berea baita zeruetako erreinua. Ez du zertan izan inoren beldurrik, ez zaiolako axola dena galtzea, ezta ez duelako galeratzat; Jainkoa nahigabetzeaz da soilik beldur; eta otoitz egiten dio bertute haietan eusteko, bere erruz gal ez ditzan” (*Bidea* 10, 3).

d) Erabaki handi eta sendoa!

“Jainkozko bidea”, “zerurako errege-bidea”, “altxor handia”, “bizi-ura”... Holako berbak darabilz Teresak otoitzari garrantzia emoteko. Berba handiak Teresarenak otoitz bideari gogor eta pozik ekiteko: “Bide horretatik joan eta helmugara iritsi arte gelditu nahi ez dutenengana itzuliz, bizi-ur hau edatera iristea baita, nola hasi behar duten oso garrantzitsua dela diot, eta hor dagoela dena: haraino iritsi arte ez gelditzeko erabaki handi eta adoretuan, datorrena datorrela, gertatuak gertatu, nekeak neke, marmarka jardun dezanak jardun dezala, bertaraino iritsi nahiz ez, nahiz eta bide erdian hil behar edota bidean dauden nekeak eramateko kemenik ez izan, nahiz eta mundua hondatu, behin baino gehiagotan esango baitizkigute honelakoak: ‘kontuz, gero’, ‘urlia hortik galdu zen’, ‘sandiak bide okerrera jo zuen’, ‘berendia, errezo artean zebilena, behera etorri zen’, ‘erlijioari kalte egiten diote’, ‘ez da emakumeentzako zera’, ‘ameskeriak sor baitakizkie’, ‘hobe dute goruetan egitea’, ‘ez dute halako txukunkeriarik behar’, ‘nahiko dute Gure Aita eta Agur Mariarekin’. Ni neu ere horretan nago, ene ahizpak; jakina nahiko dela! Beti da gauza handia zuen otoitza Jaunarena bezalako ahoz esanak diren otoitz horietan oinarritzea” (*Bidea* 21, 2-3).

Astindu ederra emoten deutse Teresak otoitz-bidea arriskutat dabenei. Horrelako jendartetik ihes egitera deika dator: “Hau arriskutsua dela esan diezazuena, har ezazue arrisku be-

ratzat eta ihes egin harengandik. Eta ez ahaztu, beharbada, aholku hau behar duzuela. Arriskua bai izango da apaltasunik eta gainerako bertuterik ez izatea; baina otoitz-bidea arrisku bide? Jainkoak ez beza nahi sekula halakorik. (...) izan ere, gaitzetik gordetzen direlakoan onari hitz egiten diote. Sekula ez dut ikusi asmakizun okerragorik: benetan dirudi deabruarena. Oi ene Jauna!, irten ezazu zeure buruaren alde; begira, zure hitzak okerretara ulertzen dituzte. Ez baimendu halako ahuleziarik zeure zerbitzariengan” (*Bidea* 21, 7-8).

“Datorrena datorrela”, hasitako otoitz-bidean, atzera ez egiteko, dino Teresak. Behin eta barriro errepikatuko dau: “Erabaki sendoz hastea zerikusi handikoa dela, diot, arrazoi askogatik. (...) Ez da bidezkoa, hainbeste eman digunari eta etengabe ematen digunari, gauza bat ematera jarri nahi dugunean, hau da, ardura txiki hau (ez, gainera, interesik gabe, irabazi handiekin baizik), ez diogula ematen erabaki osoz, berriro hartzeko maileguz ematen den antzera baizik. Hau ez nuke esango nik ematea denik. (...) Zein emazte da, bere senarragandik bitxi preziatuak hartu ondoren, eraztun bat behinik behin emango ez dionik, ez hark duen balioagatik, dagoeneko senarrak guztia baitu berea, hil arte senarrarena izango den seinaleztat baizik? Zer gutxiagorik merezi du, bada, Jaun honek? Ezereza den gauza bat eman, eta gainera gutxiagorik merezi du, bada, Jaun honek? Ezereza den gauza bat eman, eta gainera eutsi eta tati eginez haren lepotik barre egitea? Baina geure buruarekin eta eskertuko ez digunarekin ematen dugun denbora guztitik Hari ematea erabaki dugun pixkatxo hau, tarte hura eman nahi diogunez gero, eman diezaiogun pentsamendua aske dela eta beste gauza batzuetatik hustuta, eta, horregatik etor daitezen neke, eragozpen eta lehortasunak gorabehera, ordu hura sekula berriro geuretzat ez hartzeko oso-osoko erabakiaz: neurea ez dudan gauzatzat izan dezadala ordu hura eta pentsa dezadala egin diezadaketela justiziaz, guztiz ematerik nahi ez banu. (...) Guztiz diot, bidezko

zeregin batzuegatik edota era bateko edo besteko ondoezagatik egun batean edo batzuetan uztea ez baita ulertu behar besterik gabe emandakoa berriro hartzea denik. Asmoa sendo egon dadila, gure Jainkoa ez da hain milika: ez die begiratzen txikikeriei. Horrela zuei zer eskertu izango du; zerbait ematea da. Gainerakoan, ona da eskuzabala ez denarekin, emateko bihotzik ez duen zekenarekin; aski du maileguz ematea. Azken batean, egin dezala zerbait, gure Jaun honek egiten den guztia aintzat hartzen baitu; guk nahi dugunera moldatzen da. Guri kontuak eskatzeko ez da batere zorrotza, eskuzabala baizik; zorra handi-handia bada ere, gutxi kostatzen zaio barkatzea. Guri ordaintzeko, berriz, hain begiratuia izanik, ez beldurrik izan bera gogoan dugula egin dugun begiak jasotzea ere saririk gabe utziko duenik” (*Bidea* 23, 1-3).

Hirugarren zatia

Baziran eztabaidak Teresaren garaietan “gogoetazko otoitza” eta “ahozko otoitzaren” artean. “Gogoetazko otoitza” aipatzea batzuei arriskutsua gertatzen jaken. Berarentzat, ostera, ez dago inondiko borrokarik. Egiatzko “ahozko otoitza” benetako otoitza bada, “gogoetazko otoitza” ere derrigorrez izan behar dau. Hori bai!, “gogoetazko otoitza” ez dago zertan izan behar “ahozko otoitza” ere. “Batera daude gogoetazko otoitza eta ahozkoa . Gure Aita errezatzen, (...) hain Jaun handiarekin hitz egitean, bidezko denez egon behar baduzu, egoki da norekin hitz egiten duzun eta zu nor zaren begiratzea, besterik ezean gizalegez hitz egiteko ere. Sekula ere ez utzi, Jauna, Zurekin ahoz soilik hitz egitera doana ontzat hartua izatea. Nik beti jarriko dut gogoetazko otoitza ahozkoarekin batera. Nok esan dezake gaizki dagoenik, Orduak edo arrosarioa erresatzen hasi baino lehen, norekin hitz egin behar duen eta nor den hitz egingo duena pentsatzen hastea, hura nola tratatu behar duen jakiteko?. Egitera zoazten ahozko otoitza hasi aurretik, jardun dezazuela luzaro gogoetazko otoitzean. Bai

horixe, ez baita joan behar printze bati hitz egitera, nekazari bati hitz egitera joaten den bezala, edota gu bezalako pertsona gaixo bati bezala, guri nolana hitz eginda ere, ongi baitago. Dena dela, Errege honen apaltasunagatik, ni, baldarra izanik, harekin hitz egiten ez badakit, ez da horregatik niri entzun gabe eta nigana etorri gabe geratzen, ezta ez naute kanpora botatzen ere haren zaintzaileek; izan ere, han dauden aingeruek ongi dakite nolakoa den beren Eregea, eta nahiago dituela artzaintxo apal baten arrunckeria hauek –gehiago baleki, gehiago esango lukeela ikusten baitu– oso jakintsuen eta letradunak baino, arrazoirik dotoreenak ontzen badituzte ere, apalatasunez ez badoaz. Beraz, Hura ona delako, ez dugu guk eragabeak izan behar. Bere ondoan ni bezalako bat onartzean jasaten duen usain txarragatik esker ona agertzeko ere besterik ezean, ongi da haren Garbitasuna eta nor den ezagutzea” (*Bidea* 22, 1- 4).

Esaterako, Gure Aita edo Agur Maria ahoskatzea beste barietate, ez da nahiko. Hoba da horretariko otoitzetako berba bat hausnartzea, hainbat bider, lorito batek bezala, prisaka errepikatu eta errepikatu jardutea baino. “Paternosterreko hitz bat aldika-aldika esanez askoz ere gehiago egiten duzuela, otoitz hura presaka esanez baino” (*Bidea* 31, 13). “Begiratu, bada, zein musika eskasa izango duen ‘ahozko otoitzak’ ‘gogoetazkoa’ lagun ez badu” (*Bidea* 25, 3).

Horregatik Gure Aita edo Paternoster azaltzen saiatuko da Teresa. Egundoko azalpena egingo deutso “Gure Aita” otoitzari. Otoitz giroan egindako azterketa pertsonala eta berezia. Jaunaren otoitzaren azalpenak otoitz giroan egingo ditu gehienbat. Horregatik, ez dauko zer ikusi handirik gaurko exegeta batek edo teologo batek egindako adierazpenekin.

Adibidez, “Panem nostrum quotidianum da nobis hodie” azaltzerakoan, lurreko ogitik Sakramentu guztiz Santura bere-

halaxe egiten dau salto. Bihotzetik urtengo deutso Aita Betikoari egindako otoitz liluragarri honek:

“Bada, Aita santu zeruetan zaudena, hala nahi duzunez eta onartzen, eta argi dago ez zenukeela ukatuko guri hain ongi datorkigun gauzarik, norbaitek hitz egin beharko du –hasieran esan nuenez– zure Semearen alde ere, Hura ez baita sekula bere alde irtengo. Izan gaitezan gu geu, ene alabak, ausarkeria bada ere, garen bezalakoak izanik; baina Jaunak eskatzeko agintzen digula kontuan izanik, agindu honi men eginik, Jesus onaren izenean eska diezaiogun Haren Maiestateari, honelako mesede handia bekatariei eginez ez baitzaio geratu besterik egiteko, haren biotz errukitsuak nahi dezala eta jar dezala erre-medioa, hainbesteko tratu txarrik hartu ez dezan. Eta haren Seme santuak oparitzat sarri-sarri eskain dezagun, hain bitarteko ona jarri zuenez gero, baliagarri izan dadila dohain preziatu hau, luterotar hauen artean Sakramentu guztiz Santu hau zegoen tokietan egiten diren bezalako gaitz handi-handi eta lotsagabekeriak, elizak suntsituz, hainbeste apaiz galduz, sakrametuak kenduz, aurrera joan ez daitezen. Zer dugu hau, ene Jaun eta ene Jainkoa! Edo eman amaiera munduari, edo jar erremedioa hain gaitz larriei; ez baita bihotzik hau jasan dezakeenik, ezta hain kaskarrak garenon bihotzik ere. Arren eskatzen dizut, ene Aita Betikoa, ez dezazula jasan Zuk ere honetzero. Eten su hau, Jauna, nahi baduzu zeure esku duzu-eta. Kontuan izan oraindik munduan dagoela zure Semea; haren lotsagatik, amai bitez gauza hain itsusi, nazkagarri eta lohiak; haren edertasun eta garbitasunagatik, ez du merezi halako gauzak dauden etxean egotea. Ez ezazu egin, Jauna, gugatik, ez baitugu merezi; egin ezazu zeure Semeagatik. Gurekin ez dadila egon eskatzen ez gara ausartzen: zer egingo genuke guk Hura gabe? Zerbaitek baretzekotan, halako bermea hemen izateak. Nahitaez egon behar erremedioren bat, ene Jauna; jar beza Berorren Maiestateak” (*Bidea* 35, 3-4).

Ikusten danez, Teresaren azalpenak ez daukee antzik ere gaurko exegeten eta teologoen azalpenekin. Otoitz giroan sortzen diran azalpenak eta bestelakoak oso desberdinak dira. Bi mundu, bi esperientzia islatzen dabez.

Laugarren zatia

“Otoitz bidea” egiteko, Santa Teresak bi ibilbide edo ikasbide jarten ditu liburu honetan. Bata Jesus Jauna ondoan daukagun laguntzaileari begira egiten doguna. Eta bestea, bihotz barnean daroagun Jesus Jaunagaz bilduta egiten doguna, hau da, “bildutasunezko otoitza” deritxona. Biak oso onak. Baliteke lehenengoa gizonentzat atseginagoa izatea. Eta bigarrena emakueentzat. Teresak biak erabilten ditu. Batzuetan bata eta besteetan bestea. Baina maitagarriagoa daukala dirudi “bildutasunezko otoitza”. Ibilbide bakotxari kapitulu eder baina eskeintzen deutsoz. Lehenengoari, 26. kapitulu osoa. Eta bigarrenari, 28. kapitulua.

Hona hemen ibilbide bakotxaren pare bat testu hunkigarri. Lehenengoari buruz: “Saia zaitetz, ene alaba, laguna zeure ondoan izaten, bakarrik baitzaude. Eta nor lagun hoberik, erre-zatu behar duzun otoitza irakatsi zuen Maisua bera baino? Iru-dika ezazu Jauna bera zeure ondoan eta ohar zaitetz zein maitasun eta apaltasun handiz irakasten ari zaizun. Eta sinetsi iezadazu, ahal duzun bitartean ez zaitetz egon hain adiskide on hori gabe. Zeure ondoan hura izaten ohitzen bazara ezin-go duzu -esan ohi denez- zeure ondotik bidali; sekula ez zaitu bakarrik utziko, zeure lan guztietan lagunduko dizu; alde guztietan zeurekin izango duzu. Gutxi dela uste duzu horrelako adiskide bat ondoan izatea? Ohitu zaitetzte, ohitu egiazko Maisu honen ondoan ibiltzen. Ez dizuet eskatzen orain Berarengan pentsatzeko, ez arrazoi ugari ateratzeko ezta zuen adimenaz gogoeta sakon eta txukunak egiteko ere; Berari begiratzeko baino ez dizuet eskatzen.

Pozik bazaude, begira iezaiozu pizturik; hilobitik nola irten zen irudikatzeak besterik gabe poztuko zaitu. Haren argi-distira, haren ederra! Zein handi, zein garaile eta alai!

Neke artean edo tristuraz bazaude, begira iezaiozue baratzera bidean: hain nahigabe handia zeraman ariman, non, pazientzia bera izanik ere, esan egiten baitu eta kexua agertzen! Edota begira iezaiozue zutabeari lotuta, minez beterik, zueganako maitasunaren handiz gorputz-atal guztiak zati-zati egirik; hainbeste sufrikario, batzuen aldetik pertsegitua, besteen aldetik txixtukatua, bere adiskideen aldetik ukatua, haiek bertan behera utzia, inor beraren alde irteten ez dela, hotzak hilik, hain bakardade handian egonik, horrela elkar kontsola dezakezue. Edota begira iezaiozue gurutzearen zama daramala, arnasa hartzen ere uzten ez diotela. Berak begi eder-eder eta maitasunezkoek, malkoz beterikoez begiratuko dizue, eta ahaztu egingo ditu bere saminak zuek zeuen saminetatik kontsolatzearren, soil-soilik Berarekin kontsolatzera joan zaitetzen eta burua Berari begiratzeko itzul dezazuen. (...) Ibil gaitezen, Jauna, gu biok elkarrekin. Zu zoazen lekutik joan behar dut nik. Zu igarotzen zaren lekutik, igaro behar dut” (ikus. 26. kapitulua).

Bildutasunezko otoitza dala eta, beste testu zoragarri honeek ere bihotza dardarka jarten dabe: “Badakizue Jainkoa alde guztietan dela. Argi dago bada, erregea den tokian, gortea ere han dela diote. Azken batean, Jainkoa den tokian, han da zerua. Sinets dezakezue ezbairik, Haren Maiestatea den tokian han dela zorientasun osoa. Uste duzue garrantzi gutxikoa dela arima barreiatu batentzat egia hau ulertzea eta ez duela zerura joan beharrik bere Aita Betikoarekin hitz egiteko, ezta Harekin gozatzeko ere, eta ez duela oihuka hitz egin beharrik ere? Ahotsik leunenaz hitz eginda ere, hurbil-hurbil dago eta entzungo digu. Eta ez du arimak hegorik ere behar Hura bilatzeko, bakardadean jarri eta bere barrura begiratu baizik eta ez harritu hain ostalari onaz; baizik eta aitari legez hitz egin, aita-

ri legez eskatu, bere nekeak kontatu, haietarako erremedioa eskatu, beraren alaba izateko ez dela duin konturaturik. Horrela gure arimaren zeru txiki honetan, berau eta lurra egin zituena dagoen honetan, itxita egon ahal direnak eta kanpoko zentzumen hauek barreia daitezkeen tokiei ez begiratzen eta han ez egoten ohitu ahal direnak, sinets dezatela bide ononetik doazela eta ez direla iturriko uretik edatera iritsi gabe geratuko, epe laburrean bide luzea egiten dutelako. Belaontzi batean doana bezala da, haize-giro on pixka batekin ibilaldia- ren azkenera iritsiko baita egun gutxi barru; lurretik doazene- nek, ordea, epe luzeagoa beharko dute” (ikus. 28. kapitulua).

Jesus aldamenean dogula edo arima barnean dogula, me- rezi dau Berarekin otoitz bidea egitea.

* * *

SANTA TERESAREN “BARNE GAZTELUA”


“Barne Gaztelua” izango da Teresaren liburuen artean ede- rrenik ederrena. Jeronimo Grazianek eta Alonso Velazquezek aginduta idazten dau. Ez dauko gogorik eta osasunez ere lar makal sentitzen da.

Hauxe dino: “Obedientiak agindutako gauzetatik gutxi gertatu zaizkit, otoitzeko gauzez orain idaztea bezain zail; al- de batetik, uste dudalako Jaunak ez didala ematen hori egite- ko espiritua ezta gogoia ere” (Hitzaurrea 1).

Beste liburuetan esandako gauzak errepikatuko ete dituan bildur ere bada: “Egia da, idazteko agindu didaten beste lan batzuetan esan ditudanak baino asko gehiago ez dudala as- matuko esaten, beldur naiz ez ote diren ia guztiak gauza ber- dinak izango” (Hitzaurrea 2).

Ez bakarrik agintzen deuselako, badau beste arrazoitxo bat ere idazteko. Begiko dau Aita Grazianen aholkua: “Kar-

mengo gure Amaren monasterioetako moja hauek otoitzeko zalantza batzuk norbaitek argitu beharra dutela, eta uste duela emakumeek beste emakume batzuen hitz egiteko era eta niri didaten maitasunaz egokiago etorriko zitzaiela nik esan niezaiena; arrazoi honengatik, uste dut, nolabaiteko garrantzia izan dezakeela zerbait esaten asmatzen bada” (Hiztaurrea 4).



Barne Gaztelua *liburuaren basiera*

Eta holantxe, Hirutasun guztiz Santuaren, 1577ko ekainaren 2an, “Barne Gaztelua” idazten hasiko da Toledon eta urte berean, azaroaren 29an, amaituko dau Ávilan. 62urte ditu lepoan baina burua argi eta bihotza barne esperientzia ederrez gainezka. Liburu honetan Juan Kurutzekoaren gidaritza ere ageri da. Urte batzuk daroaz bere konfessore bezala.

Sinboloz beteriko liburua

Jakin badaki Teresak Jaungoikoa gure “biziaren bizia” eta “gure maitasunaren maitasuna” eta gure “arnasaren arnasa” danez, gugaz maiteminduta bizitzeko sortu gaituala. Txunditu-

ta eta aldi berean esker onez dino: “Ez digu kalterik egiten erbeste honetan hain Jainko handia kiratsez beteriko har batzuekin harremanetan jar daitekeela jakiteak; eta hain ontasun ona eta erruki neurrigabea maitatzeak” (1. Eg. 1, 3).

Apal eta umil ikusten dau Jauna gurekin bat egin nahirik: “Gure Jaun honek hain estimu handitan du guk Bera maitatzea eta beraren laguntza, non behin eta berriro deitzen baitigu Beragana hurbil gaitezen; eta ahots hau hain gozoa da, non arima gaixoa urtu egiten baita agintzen diona ez egitean; eta honela –diodanez– gauza neketsuagoa da ez entzunda baino”(2.Eg. 2).

Eta gainera barneko esperientzia mistiko sakonak eta liluragarriak eta gorengoak bizi izan ditu: “Laugarren egoitzaz hitz egiten hasteko oso beharrezkoa dut egin dudana, hau da, Espiritu Santuari neure burua gomendatzea eta hemendik aurrera nire ordeztu hitz egin dezala eskatzea, geratzen dena zuek ulertzeko eran esan dezadan; izan ere, naturaz gaindiko gauzak izaten hasten dira, eta oso zaila da aditzera ematea” (4.Eg. 1, 1).

Bosgarren egoitzaren aurrean dudaz beterik dagoanez, esango dau: “Nola adierazi nik zuei bosgarren egoitzetan gordetzen diren aberastasuna, altxorrak eta atseginak? Uste dut hobe litzatekeela ezer ez esatea geratzen diren ondorengoei buruz, bada, ezin da adierazi eta adimenak ere ezin ulertu, ezta konparazioek ez dute balio hori azaltzeko, lurreko gauzak kaskarregiak direlako xede hauetarako” (5. Eg. 1, 1).

Eta dardarka eta bildurrez dago zazpigarren egoitzen hasieran: “Oi Jainko handia!, badirudi ni bezalako kreatura kaskar batek dardar egiten duela, ulertzea merezi dudanetik hain urrun den gauzaz aritzean. Eta egia da nahasmern handian sartua naizela, egoitza hau hitz batzuk esanik amaitzea ez ote den hoberena pentsatuz” (7. Eg. 1, 2).

Zer egin bizi dituan esperientzia mistikoak azaltzeko? Gonorazko hitzik ez daukanez barneko gauza horreek adierazteko, horra hor Teresaren sormena konparazioak eta alegoriak

eta metaforak eta irudiak eta parabolak eta sinboloak asmatzeko. Baina inoiz ere ahaztu gabe espirituzko gauzak “esateko baino sentitzeko gehiago direla” (7. Eg. 2, 1).

Liburu honetan, besteak beste, hiru sinbolo honeek ditugu ezagunenak: “diamantezko edo kristalezko gazteluaren” alegoria, pertsonen duintasuna adierazteko (ikus 1. Eg. 1, 1-3); “zeta-har itsusiaren metamorfosia tximeleta zuria bihurturik”, arimen antzaldatzea azaltzeko (ikus 5. Eg. 2, 2 – 7); “ezkontzaren” alegoria, Jaungoikoaren eta arimen “bat egitea” argitzeko (ikus 5. Eg. 4, 2 – 5; 7. Eg. 1, 5).

Baditu Teresak beste hainbat irudi arimaren eta Jaungoikoaren “bat egite hori” esplikatzeko. Hona hemen, esaterako, hiru-lau argibide simple eta errazak ulertzeko: “Esan dezagun bat egitea honela izan daitekeela: argizarizko bi kandela bezala, bata bestearekin oso-osoan biltzen direnak, argi guztia bat izateraino, edota metxa eta argia eta argizaria bat izateraino; baina gero ongi bereiz daitezke bata eta bestea, eta bi kandeletan geratzen dira, edota argizarizko bi metxatan. Hemen, ordea, zerutik ibai edo iturri batean eroritako ura bezala da, guztia ur eginik, ez baitago bereizterik ezta jakiterik ere zein den ibaikoia eta zein zerutik erori zena; edota itsasoan sartzen den erreka txikitxo bat bezala da, ez da izango bata bestetik bereizteko modurik; edota gela batean argi handia sartzeko bi leiho baleude bezala; bereiz sartzen bada ere, guztia argi bat egiten da. (...) Jesu Kristo gure Jaunak behin apostoluen alde otoitz eginez hau esan zuen: bat izan zitezela Aitarekin eta Berarekin, Jesu Kristo gure Jauna Aitagan eta Aita Beragan dagoenez. Ez dakit zer maitasun izan daitekeen hau baino handiagoa! Eta guztiok sartzen gara hor, Haren Maiestateak esan baitzuen: *ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baina niregan sinetsiko dutenen alde ere*, eta gainera hau dio: *Ni baiekin nago*. Oi, ene Jainkoa, bai egiazkoak direla hitz hauek!, eta bai ongi ulertzen dituela arimak, otoitz honetan bere buruz ikusten baitu!” (7. Eg. 2, 4. 7).

Naturazko eta naturaz gaindiko graziak

Dohain eta graziaz eta faborez beteriko emakumea dogu Teresa. Bai naturazkoak eta bai naturaz gaindikoak edo mistikoak ere. Esperientziaz daki bereizten bai batzuk eta bai besteak. Naturazkoak norbere abileziaz eta arduraz lortzen diranei deitzen deutse berak. Naturaz gaindikoak edo mistikoak, ostera, Jaungoikoak nahi dauanari zuzenean emondako graziak eta mesedeak izaten dira. Oso argia danez, ondo dakiz gauzak bereizten.

Ejenplu hau dakarsku gauzak egoki argitzeko: “Hobeki ulertzeko, egin dezagun bi iturri ikusten ditugula urez beteten diren askarekin, espirituzko gauza batzuk azaltzeko ez baitut aurkitzen besterik uraren hau baino egokiago datorrenik. (...) Bi aska hauek era desberdinez betetzen dira urez: aska bata urrunagotik dator ubide eta artifizio ugariren bitartez; bestea ura jaiotzen den iturburuan bertan egina da eta urez betez doa inolako hotsik gabe, eta iturburua emari handikoa bada, ahotan darabilgun hau bezala, aska hau bete ondoren erreka handi bat sortzen da; ez da artifiziorik behar, ez da amaitzen ubideen eraikina ere, baizik-eta ura etengabe irteten da handik. Honetan dago alde: ubideetatik datozen urak, nire iritzi, meditazioaz ateratzen direla esana dudana “pozak” dira; izan ere, pentsamenduen bidez ekartzen ditugu, sorkarien laguntzaz meditazioan eta adimena nekatuz; eta azken batean gure ahaleginez datozenez gero, esanda geratu danez, hotsa ateratzen duten, ariman on egiteko asetze uneren bat gertatzen denean.

Beste iturri honetan, ordea, barrutiko gozotasuna sorrarazten ditu, nik dakit norantz eta nola, ezta poz eta atsegin hura ere, ura iturburutik bertatik dator, hau da, Jainkoagandik eta horrela, Haren Maiestateak nahi duenean, naturaz gaindiko mesederen bat egin nahi duenean, bake eta atsedean handi handia eta gure barru-barrutiko gozotasuna sorrarazten ditu,

pñareys mas peñari du qor asetan gran dya sus
 y for careys a contentarte mejor ya dafi que oya
 da el tamenorro su figura q como de gi adu gñate
 tradi qel demurjos gran pintory filemy trade
 muy ubbi bu may mo se del fenor q no le peñari ya
 con ella bi bar los de bo gion y a gñe de mu y oge
 ha con sy mismas mal dades q a q bu pin tu seamy
 malo no pro es se a de se a de se beren gñe la y mo se
 q ase sie de to do muy tu bien paregi a le muy mal
 lo q al gñe a conse ja q den y gas quado as si die ten
 al gñe a bi si on por q de gñe q adonde qujer q veamos
 pñate a muy tro sey be nos de se beren gñe y leo q
 tiene esto q por q ana ca se fen taria si su pñe ma per
 sona q qjer a bi a v tra q asio se me ja te bi tu perior
 a su se trato no gñe a de celo / pues quato mo es
 ha con q si se pe se ten ga se pe to adonde vieren
 bu crugi si so quol qujer se trato de me tro e ye
 ra do ran q es crito e v tra pa te es to me se gñe
 poner lo a qui por q bi q bu a persona a da bu a bi si
 da q la man da van to ma se te se me dio no se que
 legu de to tan pa a to me tar a que no pa die en ce
 menos de o be de se si el con se fure de se se con se
 paregi e de le vo xer di da si no lo a gñe el mo q an

nik ez dakit norantz eta nola, ezta poz eta atsegin hura hementxo bezela bihotzean sentitzen den ala ere ez, –bere hasieran esan nahi dut, gero dena asetzen denean–, ur hau egoitza et ahalmen guztietara zabalduz gorputzeraino iritxi arte; horregatik esan nuen, Jainkoagandik hasten dela eta jaioten dela eta gugan amaitzen ;egia esan probatu duenak ikusiko duenez, gizakiaren kanpoalde osoak gozutzen du gozotasun eta leuntasun honetaz” (4BG 2, 2 – 4).

Grazia eta mesede mistikoen aurrean, “apaltasuna, apaltasuna” besterik ez dau nahi Teresak. Bai berantzat eta bai bere mojentzat ere. “Berarenak gara, ene ahizpak; egin dezala nahi duena gurekin, eraman gaitzala nahi duen lekutik” (4. Eg. 2, 10). Egirik biribilena eta inportanteena “Jainkoa interesik gabe maitatzea delako” (4. Eg. 2, 9). Beste liburuetan bezala, hauxe izango da, *Barne Gazteluan* ere, gehien azpimarratzen dauana: Jaungoikoaren maitasuna eta errukia eta apaltasuna gugaz. Eta bide horretatik ibiltera eta Jaungoikoaren imitatzaile jatorrak izatera, gonbidatzen gaitu Teresak.

Arimen edertasuna

Arimen edertasuna eta duintasuna, honela adierazten deusku Santa Teresak: “Gure arima diamantezko edo kristal garden-gardenezko gaztelu bat balitz bezala irudikatu dezakegula, eta bertan gela asko daudela, zeruan ere asko dauden bezala. Izan ere, ongi begiratuz gero, ene ahizpak, zintzoaren arima ez da besterik paradisu bat baizik, Jaunak bere atsegin guztiak dituela dioena. Zer deritzazue bada, izango dela Errege hain ahaltsu, jakintsu, hain garbi eta guztizko ondasunez hain betea denak atsegin hartzeko gela. Nik ez dut ezer aurkitzen arima baten edertasunari eta lekuaren handitasunari berdintzekorik; eta, egiaz, gure adimena, denik eta zorrotzena ere, nekez iritsiko da hori ulertzera, Jainkoa ulertzera iristerik

ez duen bezala, Berak esan zuenez gero bere irudi eta antzera egin gaituela.

Beraz, hau egia bada, eta hala da, ez dugu zertan nekaturik gaztelu honen edertasuna ulertu nahian; izan ere, arimagandik Jainkoagana kreaturagandik Kreatzaileagana dagoen alde berbera dago, arima kreatura baita; hala ere, Jainkoak bere antzeko egin duela esatea nahiko da, guk arimaren duintasuna eta edertasuna ulertu dezakegula jakiteko” (1. Eg. 1, 1).

Deskribapen eder hau, arima zintzoei dagokie. Baina zer gertatzen da pekatu astunean jausten diranekin. Horreengan ere Jaun onak diz-diz eginez jarraitzen du. Hori bai, ”egotetik egotera alde handia dagoela jakin behar da” (ikus: 1. Eg. 1, 5).

Irudi eta berba gogorak darabilz Teresak, pekatu astunaren zatartasuna azaltzeko: “Aurrera joan baino lehen, esan nahi dizuet gogoan izan dezazuela zer izango den gaztelu hain distiratsu eta eder hau, ekialdeko harribitxi hau, biziaren ur bizitan bertan, hau da Jainkoagan, landatua dagoen biziaren zuhaitz hau ikustea, bekatu astun batean erortzen denean: ez da ilunpe itsuagorik, ezta ilun eta beltzagorik hura baino. Nahiko da jakitea, hainbesteko distira eta edertasuna eman zizkion eguzkia bera oraindik beraren arimaren erdian egonik, han ez balego bezala dela Harengandik parte izateko, Haren Maiestateaz gozatzeko egiaz gai izan arren, eguzkian bertan diz-diz egiteko kristala gai den bezala. Ezerk ez dio onik egiten, eta hortik dator, horrela bekatu astunean egonik, egin ditzan egintza on guztiak inolako fruiturik gabeak izatea zeruko aintza lortzeko; izan ere, iturburu hartatik, Jainkoagandik, ez badator, gure bertutea hortik baita bertute, eta Harengandik aldendurik, ezin daiteke atsegin izan haren begietan; azken batean, bekatu astun bat egiten duenaren asmoa ez da Hura poztea, deabruari atsegin ematea baizik; hau ilunpea bera denez gero, arima gaixoa ere ilunpe berean murgildurik geratzen da. (...) Gogoan izan be-

har da hemen, arimaren erdian den iturriak eta eguzki distiratsu hark ez duela galtzen ez distirarik ez edertasunik, bere barnean baitu beti, eta ezerk ez baitio kendu bere edertasuna. Hala ere, eguzkiak jotzen duen kristalaren gainean oihal beltz-beltz bat jarriz gero, argi dago, eguzkiak bertan jo arren, haren argiak ez duela egingo lanik kristalean. Oi, Jesu Kristoren odolaz berrerositako arimak! Ezagutu eta izan zeuen buruen erruki! Nola liteke, hau jakinik, bike hau kristal honetatik kentzen ez saiatzea?” (1. Eg. 2, 1 – 4).

Jaunaren errukia eta pazientzia

Seigarren egoitzan, konparazio hau jarten deusku begien aurrean, Jaunaren errukia eta patzientzia kontuan hartzeko: “Egin dezagun Jainkoa egoitza eta jauregi handi eta zoragarria dela, hau da, Jainkoa berbera dela. Urrundu ote daiteke, menturaz, bekataria jauregi honetatik, bere gaiztakeriak egiteko? Ez horixe; Jainkoa bera den jauregian bertan gertatzen dira bekatariorik egiten ditugun gauza higuigarri, zantar eta gaiztakeria guztiak. Bai dela beldur izatekoa, gogoan hartzekoa eta probetxu handikoa gutxi dakigunontzat, ez baitugu lortzen egia hauek ulertzea, bestela ezinezkoa bailitzateke hain zentzugabeko lotsa txarra! Gogora dezagun, ene ahizpak, Jainkoaren erruki handia eta egonarria, gu hantxe bertan ez hondatzeko, eta eman diezazkiogun eskerrak, eta lotsagorri gaitezen gure aurka egiten edo esaten dena sentitu izanagatik; munduko gaiztakeriarik handiena baita guk, bertan ez geundela, gugatik noizbait esandako hitz bakar bat, beharbada asmo txarrik gabe esandakoa, sentitzea, Jainko gure Kreatzailak bere kreaturei hainbeste irain bere Barruan sufritzen dizkieten bitartean.

Oi giza ezereztasuna! Noiz arte iraungo dugu, ene alabak, Jainko handi hau zerbaitetan imitatu gabe? Oi!, dagoeneko ez dezagula inolako ardurarik izan irainak sufritzeagatik, baizik-

eta sufri ditzagula gogo onez eta maitatu iraintzen gaituena, Jainko handi honek ez baitio gu maitatzeari utzi, guk irain ugari egin arren; arrazoi osoz nahi du, beraz, guztiek barka ditzatela bidegabekorik handienak egin badizkiete ere” (6. Eg. 10, 3 – 4).

Oinak lur gainean

Nahiz eta estasiak eta aparteko beste hainbat naturaz gaindiko ikuskari esperimentatu, Teresak oinak lur gainean ditu. Bosgarren egoitzan, itaun hau egiten dau Teresak: “Zer behar da Jainkoaren borondatearekin guztiz bat eginik egoteko?” (ikus: 5. Eg. 3, 6).

Hona hemen, zuhurtasunez eta zentzunez beteriko erantzuna: “Guztiz onak izan gaitezela; Berarekin eta Aitarekin bat izan gaitezen, Haren Maiestateak eskatu zion bezala. (...) Jaunak ez baitu guri esku-erakutsi handiak egin beharrik horretarako; nahikoa da bere Semea ematean eman diguna, bidea erakus diezagun. Ez uste izan, nire aita nahiz neba hiltzen bada, heriotza hori ez sentitzeraino Jainkoaren borondatearekin bat-egitea denik kontua; ez da kontua, neke eta gaixotasunak badaude, haiek pozik sufritzean ere. Ona da bai, eta batzuetan zuhurtasun kontua da, gehiago ezin dugulako, eta bertute egiten dugu nahitaezkoa dena. Honelako zenbat egiten zuten filosofoek, eta honelakoa izan ez arren, bestelakoak, jakinduria handia zutelako. Hemen bi gauza hauek soilik eskatzen dizkigu Jaunak: Haren Maiestatea maitatzea eta lagun-hurkoa maitatzea; hori da guk landu behar duguna. Hauek ongi betez gero, haren borondatea egiten dugu, eta horrela Berarekin bat eginik egongo gara” (5. Eg. 3, 7).

Historiak ezagutu eta emon dauan mistikorik bikanetakoaren berbak ez dira faltsuak. Ziur dago, Jaungoikoaganako maitasuna, lagun-hurkoaganako maitasunak neurtzen dauala: “Bi gauza hauek betetzen ditugulako ezaugarririk ziu-

rena, nire iritziz, lagun hurkoaganako maitasunaren agindua ongi betetzea da; eta egon ziur, lagun-hurkoaren maitasunean aurrerago, Jainkoarenean ere aurrerago zoaztela; bada, Haren Maiestateak guri digun maitasuna hain handia izanik, lagun-hurkoari guk diogunaren ordain-sari, mila eratan gehituko digu Berari dioguna. Honetan nik ezin dezaket zalantzarik izan” (5. Eg. 3, 8).

Bere esperientziaz daki Teresak, lagun-hurkoa maite dogun heinean maitatzen dogula Jaungoikoa. Bere begiekin ikusitako kasuak salatzeke ez dauko lotsarik:

“Zenbat unetan atsegin zait arima batzuei erreparatzea; otoitzean ari direnean, iruditzen zaie, Jainkoagatik eraitsiak eta agerian gaitzetsiak izatea nahi luketela, eta gero bere hutsegite txiki bat ere estali egingo lukete ahal izanez gero, eta halakorik egin ez eta egozten badiote, Jainkoak gorde gaitzala. (...). Ene ahizpak, zein argi antzematen den lagun-hurkoaganako maitasuna zuetako nortzuengan dagoen benetan, eta nortzuengan ez dagoen hain perfekzio handian! Ulertuko bazenute bertute hau zenbateraino doakigun, ez zenukete izango besterik gogoan. Arimak zer eratako otoitza duten ulertzeko ardura handiaz eta otoitzean ari direnean kopetilun ikusten ditudanean, izan dituzten gozotasuna eta debozioa joango ote zaien beldurrez zirkinik egiten eta pentsamenduei eragiten ere ez direla ausartzen dirudiela, konturatzen naiz zein gutxi dakiten bat-egitea lortzeko bidearen berri, irabazi guztia hartan dutela uste baitute. Ez, ene ahizpak, ez; egintzak nahi ditu Jaunak, eta gaixo bat ikusten baduzu aringarriren eman diezaiokezuna, ez zaitez kezkatu otoitzeko bero hori galduko duzulakoan errukitu zaitez harekin; eta minik badu, min har ezazu zuk ere; eta premiarik badu, egizu barau hark jan dezan, ez hainbestean beragatik, zure Jaunak huraxe nahi duelako baizik. Hau da egiazko bat-egitea haren borondatearekin, persona bat biziki goresten dutela ikusten baduzu, zu zeu goretsiko bazintuzte baino askoz ere gehiago poztu zaitezela. Hau egia esan, erraza da, apaltasunik bada-

go, bere burua horrela goretsia ikustea penagarri egingo zaiolako. Bestalde, gauza handia da ahizpen bertuteak agerian jartzean hartzen den poztasuna eta haietakoren batengan hutsegiteren bat ikus dezagunean, senti dezagula geurea balitz bezala eta dismula dezagula” (5. Eg. 3, 10 - 11).

Espiritualen Ama

“Barne Gazteluaren” zazpigarren egoitzan, azkenengo kapituluari, Jaungoikoaren eta arimaren espirituzko ezkontzaren bat-egitearen ospakizun zoragarriak azaldu ondoren (ikus 7. Eg. 2, 2), benetan deigarria eta baita harrigarria ere, egiten jat, Teresak egiten dauan galdera hau: “Ba al dakizue zer den egiaz espiritualak izatea?” (7. Eg. 4, 8). Baten bat despistatuta badabil, Teresaren erantzuna jatorra benetan! Egiazko kristau mistiko batena: “Jainkoaren esklabo bihurtzea, haren burdinaren, hau da, gurutzearen ikurraz seinalaturik, esklabotzat mundu osoan zehar saldu ahal ditzan. Bera saldua izan zen bezala, haiek beren askatasuna baitute. (...) Beraz, ene ahizpak, eraikinak oinarri onak izan ditzan, saia zaitezte guztietatik txikiena izaten eta haren mirabeak izaten haiei nola eta nondik atsegin eman begiratu. (...) Berritot diot horretarako dela zuen oinarria errezo eta kontenplazioan soilik ez ipintzea; izan ere, bertuteak lortzen eta haiek lantzen saiatzen ez bazarete, betiere txiki-txiki geratuko zarete; eta Jainkoak nahi beza ez hazteagatik bakarrik izatea, izan ere, badakizue handiago egiten ez dena txikiago bihurtzen dela, ezinezkotzat dudalako maitasuna, dagoen lekuan, beti egoera berean egoteaz kontentatzea (...). Azken batean, ene ahizpak, honekin amaitzen dut: ez dezagula oinarririk gabeko dorrerik eraiki, Jaunak ez baitu hainbeste begiratzen egintzen handitasuna, nolako maitasunez egiten diren baizik” (7. Eg. 4, 8 - 9. 15).

Labur esanda, honetara jotzen dau Santa Teresaren mistika guztiak. Baita Juan Kurutzekoarenak eta Teresa Lisieuxkoarenak eta Edith Steinenak eta beste hainbesterenak. Ávilako Te-

resaren eskolako “egiazko espiritualak” edo “mistikoak” bada-
kie “Martak eta Mariak elkarrekin ibili behar dutela Jaunari os-
tatu emateko eta beraiekin izateko, eta ez harrera txarra egin,
jaten eman gabe utziz” (7. Eg. 4, 12).

Erromako San Pedroren Basilikan, sarreran dagoan Santa
Teresaren harri-irudi ederrak, zizelatuta dakar “Mater spiritua-
lium” titulua. Pablo VI.a Aita Santuak, Teresa Elizaren Irakasle
izendatu eban Eukaristian, izen hori erabili izan eban bere hi-
tzaldian ere. Elizak jarritako “Espiritualen Ama”, ederto dago-
kio Ávilako Teresari. Eta ondo irabazita dauko, gainera!

A. Olea.